

PROIEKTUAREN AZALPENA

ZUTIK izeneko proiektua aurkeztu nahi dizuegu. Gure negozio ideian parte hartzen, 3 neska gazte ekintzaile gaude; Ane, Irati eta June. Aurrerago aurkeztuko dugu bakoitzaren zeregina enpresan. Gure negozio ideia hau, batez ere, ekintzailetza sozialean oinarriturik dago.

ZUTIKen jarduera ekonomikoa, jantzien salmentan oinarrituko da, baina bereizgarri garrantzitsu batzuekin; guk oihaleetatik sortutako jantziez aparte, bezero potentzialegandik jasotzen ditugun materialen bidez arropa berriak ekoitziko ditugu. Hau da, jendeak, gure saltokira, erabiltzen ez dituen eta etxetik kendu nahi dituen erropak ekarriko ditu eta guk, horren truke, deskontu-bonu bat emango diegu. Erropa hoiak, guk, gure moda disenatzaileen bidez, eraldatu egingo ditugu momentuko moda tendentziak jarraituz eta berriz ere saltzen jarri. Deskontu bonua dutenek, gure dendan, jantziak erosteko aukera izango dute baina abantaila batekin, prezio hobeagoan lor ditzakete.

Horrela enpresa ahalik eta jasangarriena izango da, jantziei berrerabilpena emanaz. Soberakin kantitatea oso txikia izatea da gure helburua.

Horrez gain, eta guretzat gure proiektuaren ardatzik garrantzitsuena izango dena, arropa berriak ekoizten dituzten langileak, gizartean bazterturik dauden emakumeak izango direla da (tratu txarrak jasan izan dituzten emakumeak, atzerritik heldutakoak, aniztasun funtzionala, etab.), hauei gizartean txertatzen lagunduz, independentzia ekonomiko eta ahalduntzea (trebakuntza, autoestimua, erabakitze gaitasuna etabar) bermatuz.

